

Euskal AEko etxeko batez besteko gastua 35.000 euro baino handiagoa izan da 2022an, 2021ean baino % 7,3 handiagoa

Gora egin du erosketaren bat egiteko Interneta erabiltzen duten etxeen kopuruak, eta Euskal AEko biztanleriaren % 41,3k erabiltzen du dagoeneko

Etxeko batez besteko gastua, termino arruntetan, 35.445 eurokoa izan da 2022an; alegia, aurreko urtean baino % 7,3 handiagoa, eta Eustatek prestatutako datuen arabera eskuragarri dauden datuen serie osoko handiena.

Gastu-taldearen arabera, etxeko batez besteko gastuen bilakaera goranzkoa izan da 12 taldeetako 10etan. *Jatetxe eta hoteletako* etxeko batez besteko gastua izan da 2022an gehien hazi dena, % 32,9ko hazkuntza izan baitu, 2021arekin alderatuta; hala, etxeko batez besteko gastua 3.942 eurokoa izan da urtean, funtsean *Jatetxe eta Jantokietako* gastuaren ondorioz; hari talde horren gastuaren % 85,6 dagokio eta gastuaren % 14,4, *Ostatu-zerbitzuari*.

Euskal AEko etxeetako etxeko batez besteko gastua eta gastuaren egitura, gastu-taldearen arabera (ECOICOP/EGF, 2 digitu) . 2021-2022

	Sutentatzaile nagusiaren prestakuntza-maila			Gastuaren egitura (%)	
	2021	2022	Gehikuntza (%) 2022/2021	2021	2022
GUZTIRA	33.045	35.455	7,3	100,0	100,0
01 T Janari eta edari alkoholgabeak	5.171	5.499	6,3	15,7	15,5
02 T Edari alkoholodunak eta tabakoa	478	404	-15,6	1,5	1,1
03 T Jantziak eta Oinetakoak	1.377	1.411	2,4	4,2	4,0
04 T Etxebizitza, ura, elektriz., gasa eta beste erregaiak	12.165	12.411	2,0	36,8	35,0
05 T Altzariak, etxeko artikulak eta etxearen mantentze normalarentzako artikulak	1.420	1.546	8,9	4,3	4,4
06 T Osasuna	1.128	1.217	7,8	3,4	3,4
07 T Garraioa	3.071	3.430	11,7	9,3	9,7
08 T Komunikazioak	952	936	-1,7	2,9	2,6
09 T Aisia eta kultura	1.314	1.476	12,3	4,0	4,2
10 T Irakastuntza	643	759	18,0	2,0	2,1
11 T Jatetxeak eta hotelak	2.966	3.942	32,9	9,0	11,1
12 T Bestelako ondasun eta zerbitzuak	2.359	2.425	2,8	7,1	6,8

Data 2023ko Ekainaren 28a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Hazkuntza handiena izan duen bigarren gastu-taldea *Irakaskuntza* izan da (% 18,9) eta, ondoren, *Aisia eta kultura* (% 12,3), *Garraioa* (% 11,7), *Etxerako altzariak eta gauzak* (% 8,9), *Osasuna* (% 7,8) eta *Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak* (% 6,3). Era berean, aldakuntza positiboak izan dituzte, baina ez hain handiak, honako talde hauek: *Arropa eta oinetakoak* (% 2,4), *Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta beste erregai batzuk* (% 2,0) eta *Beste ondasun eta zerbitzu batzuk* (% 2,8).

Aldiz, aurreko urtearekin alderatuta, honako gastu-talde hauei dagozkien etxe bakoitzeko batez besteko gastuak murriztu dira: *Edari alkoholodunak eta tabakoa* (–% 15,6) eta *Komunikabideak* (–% 1,7), aurreko urteko bide beretik.

Jatetxe eta hoteletako gastuak pisua irabazi du etxeetako aurrekontuan, eta 2019koa ere gainditu du, pandemia aurrekoa

Gastuaren egiturari dagokionez, *Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta beste erregai batzuk* taldeko gastuak jarraitzen du Euskal AEko etxeek egiten duten gastu altuena izaten; izan ere, gastuen % 35,0 talde horri dagokio, alegia, 12.411 euro urtean etxeko, 2022an. Faktura energetikoan 2022an etxean eginiko batez besteko gastuaren igoera nabarmentzen da; izan ere, *elektrizitatearen* gastuak % 10,1 egin du gora 2021aren aldean, eta *gasarenak*, % 23,0. Hala ere, etxeetako gastuaren aurrekontuaren gainean duen pisua ehuneko 1,8 puntu jaitsi da, 2021aren aldean, eta 3,4, hurrenez hurren, 2020aren aldean, baina 2019an izan zen % 34ren gainetik dago.

Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak taldeko gastua 2021ean zuen pisua baino bi hamarren txikiagoa baino ez da; % 15,5koa izan da 2022an. Bi talde horien artean, etxeko batez besteko aurrekontuaren erdia batu dute (% 50,5); 2021ean % 52,5 izan zen. 2019an baino altuagoa izan da, orduan % 47,7koa izan baitzen.

Jatetxe eta hoteletako gastuaren pisuak, berriz, igotzen jarraitzen du, eta 2021ean baino 2,1 puntu gehiago izan ditu, % 11,1, eta 2019an –COVID-19ak eragindako pandemia aurreko urtea– baino 2 hamarren gehiago, orduan % 10,9koa izan baitzen.

Kontsumoko gastu osoa % 8,1 hazi da 2022an

Termino absolutuetan, **gastu osoa** 2022an 32.508 milioi eurokoa izan da; alegia, 2021ean baino % 8,1 handiagoa, eta bilakaerak desberdinak izan dira gastu-taldeetan.

Euskal AEko etxeetako gastu osoa, gastu taldearen arabera (2 digitu ECOICOP/FGE). 2019-2022

	Guztizko gastua (mila euro)			
	2019	2021	2022	Gehikuntza (%) 2022/2021
GUZTIRA	31.371.878	30.061.932	32.508.066	8,1
01 T Janari eta edari alkoholgabeak	4.286.875	4.704.576	5.041.678	7,2
02 T Edari alkoholdunak eta tabakoa	397.041	435.117	369.964	-15,0
03 T Jantziak eta Oinetakoak	1.412.996	1.252.988	1.293.510	3,2
04 T Etxebizitza, ura, elektriz., gasa eta beste erregaiak	10.677.287	11.067.084	11.379.469	2,8
05 T Altzariak, etxeko artikulak eta etxearen mantentze normalarentzako artikulak	1.350.616	1.291.345	1.417.610	9,8
06 T Osasuna	1.095.608	1.026.291	1.115.506	8,7
07 T Garraioa	3.364.929	2.793.299	3.145.048	12,6
08 T Komunikazioak	894.425	866.357	858.510	-0,9
09 T Aisia eta kultura	1.607.515	1.195.534	1.353.173	13,2
10 T Irakastuntza	561.362	585.218	695.753	18,9
11 T Jatetxeak eta hotelak	3.423.261	2.698.171	3.614.548	34,0
12 T Bestelako ondasun eta zerbitzuak	2.299.964	2.145.952	2.223.297	3,6

Data 2023ko Ekainaren 28a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Hala, gastuaren bolumenari dagokionez esanguratsuenak izan diren bi taldeek, *Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta beste erregai batzuk* taldeak eta *Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak* taldeak, gora egin dute gastuaren bolumenean, 2021arekin alderatuta; urteko hazkuntza % 2,8koa eta % 7,2koa izan da, hurrenez hurren.

Euskal AEko etxeek *Jatetxe eta hoteletan* egin duten gastu osoa 3.614 milioi euro baino gehiagokoa izan da, eta hazkuntza % 34,0koa izan da, 2021aren aldean; gastuaren maila 2019an egiten zen gastua baino handiagoa izan da, termino absolutuetan.

Urteko hazkuntzari dagokionez, honako gastu-talde hauek izan dira ondoren: *Irakaskuntza* (% 18,9ko urteko hazkuntza) eta *Aisia eta kultura* (% 13,2ko hazkuntza, 2021aren aldean).

Edari alkoholodunak eta tabakoaren gastua eta *Komunikabideen* gastua, berriz, % 15,0 eta % 0,9 jaitsi da, hurrenez hurren.

Arabako etxeak izan dira etxeko batez besteko gastuaren igoeraren buru

Lurralde historikoen arabera, Arabako familiek Euskal AEko kontsumo-gastu osoaren % 15,1 egin dute 2021ean, Bizkaikoek gastuaren % 52,1 eta Gipuzkoakoek % 32,8.

Euskal AEko etxeetako gastu osoa (milaka euro), gastu multzoaren (ECOICOP/EGF, 2 digitu) eta lurralde historikoen arabera. 2022

	Euskal AE	Araba/Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
GUZTIRA	32.508.066	4.896.391	16.948.702	10.662.973
01 T Janari eta edari alkoholgabeak	5.041.678	799.718	2.495.727	1.746.233
02 T Edari alkoholodunak eta tabakoa	369.964	49.510	204.224	116.229
03 T Jantziak eta Oinetakoak	1.293.510	196.893	671.807	424.810
04 T Etxebizitza, ura, elektriz., gasa eta beste erregaiak	11.379.469	1.722.431	6.046.847	3.610.191
05 T Altzariak, etxeko artikulak eta etxearen mantentze normalentzako artikulak	1.417.610	164.056	876.459	377.095
06 T Osasuna	1.115.506	186.399	512.585	416.522
07 T Garraioa	3.145.048	586.155	1.446.819	1.112.074
08 T Komunikazioak	858.510	126.963	444.339	287.208
09 T Aisia eta kultura	1.353.173	213.557	747.382	392.233
10 T Irakaskuntza	695.753	94.414	365.145	236.194
11 T Jatetxeak eta hotelak	3.614.548	442.878	1.930.787	1.240.882
12 T Bestelako ondasun eta zerbitzuak	2.223.297	313.415	1.206.581	703.301

Data 2023ko Ekainaren 28a

Iturria: Eustat, Familia-gastuaren inkesta

Arabako etxeak daude hiru lurralde historikoetako etxeko batez besteko gastuaren bigarren posizioan, 35.981 euroekin; hala, Bizkaikoek baino handiagoa izan dute, 2022an etxeko batez besteko gastuaren % 12,7ko hazkuntzarekin, hiru lurraldeetako handiena. Horrek urteko batez besteko hazkuntza ekarri du, 4.057 eurokoa etxeko. Hazkuntza hori, funtsean, *Jatetxe eta hoteletako*, *Irakaskuntzako* eta *Osasuneko* gastuen igoeraren ondorio izan da (% 35,1, % 32,0 eta % 26,4, hurrenez hurren), besteak beste. Honako gastu hauek egin dute behera, 2021aren aldean: *Edari alkoholodunak eta tabakoa* (–% 12,7), *Arropa eta oinetakoak* (–% 8,5) eta *Etxeko altzariak eta gauzak* (–% 12,5).

Gipuzkoako etxeek etxeko batez besteko gastu handiena izan dute (36.876 euro urtean batez beste etxeko), eta Euskal AEko batezbestekoa (35.455) baino % 4,0 handiagoa eta 2021ean baino % 7,9 handiagoa. Hazkuntza hori, nagusiki, *Jatetxe eta hoteletako*, *Irakaskuntzako* eta *Garraioko* gastuaren igoeraren ondorio izan da (% 46, % 13,0 eta % 12,8, hurrenez hurren). Jaitsi egin dira, berriz, honako hauetako batez besteko gastuak: *Edari alkoholodunak eta tabakoa* (–% 11,0), *Etxeko altzariak eta gauzak* (–% 6,7) eta *Komunikabideak* (–% 1,8).

Bizkaian, etxeko batez besteko gastua 34.473 eurokoa izan da, 2021ekoa baino % 5,4 handiagoa; alegia, etxeko batez besteko gastua 1.778 euro igo da urtean. Gastuaren igoerarik handiena *Jatetxeak eta hotelak* taldean izan da, zeinak % 24,9 egin baitu gora 2021aren aldean; alegia, etxeko batez besteko gastua urtean 783 euroan handitu da. Bizkaiko etxeen batez besteko gastua *Etxeko altzariak eta gauzak* taldean nabarmen hobetu da, halaber, 2020arekin alderatuta (% 23,4), bai eta *Irakaskuntza* taldean ere (% 17,9ko hazkuntza). 2021aren aldean jaitsi diren gastu-taldeak, berriz, honako hauetako gastuak izan dira: *Edari alkoholodunak eta tabakoa* (–% 18,9), *Komunikabideak* (–% 3,4), *Beste ondasun batzuk* (–% 2,2) eta *Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta beste erregai batzuk* (–% 1,1).

Internet bidez eginiko gastuak % 4,2 egin du gora, baina Arropa eta oinetakoak taldearen pisuak ehuneko 15 puntu behera

2022an, eutsi egin zaio Euskal AEko etxeek **Internet** bidez egiten duten gastuaren hazkuntzari, eta 2022an aurreko urtean baino % 4,2 handiagoa izan da, 1.499 milioi eurokoa. 2022an Internet bidez eginiko gastua Euskal AEko etxeek eginiko gastu osoaren % 4,6 izan da, 2021ekoa baino bi hamarren baxuagoa.

Euskal AEko etxeetako Internet bidezko erosketen gastuaren guztizko gastua (milaka eurotan) eta banaketa ehunekotan, gastu-taldearen arabera (2 digitu ECOICOP/FGE). 2022

	Guztizko gastua	Internet bidezko gastua	Internet bidezko gastuaren ehunekoa	Gastu osoaren banaketa, ehunekotan	Gastuaren banaketa, ehunekotan, Internet bidez
GUZTIRA	32.508.066	1.499.945	4,6	100,0	100,0
01 T Janari eta edari alkoholgabeak	5.041.678	145.067	2,9	15,5	9,7
02 T Edari alkoholdunak eta tabakoa	369.964	X	X	X	X
03 T Jantziak eta Oinetakoak	1.293.510	197.396	15,3	4,0	13,2
04 T Etxebizitza, ura, elektriz., gasa eta beste erregaiak	11.379.469	X	X	X	X
05 T Altzariak, etxeko artikulua eta etxearen mantentze normalaren zako artikulua	1.417.610	90.300	6,4	4,4	6,0
06 T Osasuna	1.115.506	X	X	X	X
07 T Garraioa	3.145.048	232.556	7,4	9,7	15,5
08 T Komunikazioak	858.510	22.556	2,6	2,6	1,5
09 T Aisia eta kultura	1.353.173	317.927	23,5	4,2	21,2
10 T Irakastuntza	695.753	X	X	X	X
11 T Jatetxeak eta hotelak	3.614.548	379.603	10,5	11,1	25,3
12 T Bestelako ondasun eta zerbitzuak	2.223.297	95.335	4,3	6,8	6,4

(x) Estatistika sekretuak babestutako datua

Data 2023ko Ekainaren 28a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Internet bidez eskuratutako ondasun eta zerbitzuen gastu-egituraren arabera, *Jatetxeak eta hotelak* taldea da 2022an pisu gehien izan duena, % 25,3koa, nagusiki EAEko etxeek *Ostatu-zerbitzuetan* Internet bidezko erosketak egitearen ondorioz. Ondoren, *Aisia eta kultura* izan da, % 21,2ko pisuarekin, eta talde horren barruan *Pakete turistikoen* erosketa nabarmentzen da, bai eta *Aisiarako, kirolerako eta kulturarako ondasunen* erosketa ere.

Hirugarren posizioan *Garraioaren* inguruko gastu-taldea izan da (% 15,5), funtsean *Garraio-zerbitzuetan* eginiko gastuari esker.

2022an Internet bidez erositako *Arropa eta oinetakoak* taldeak murrizketa handia izan du; 2021ean % 28,2 zen eta 2022an, % 13,2.

Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak taldeak aurreko urteko egitura oso antzekoari eusten dio, Internet bidez eginiko gastu osoaren % 9,7ko pisuarekin.

Internet bidez erosketak egiten dituzten Euskal AEko etxeen batez besteko gastuen bilakaera eta banaketa ehunekotan. 2016-2022

	Internet bidezko gastua duten etxeen ehunekoa (%)	Internet bidezko batez besteko gastua (euroak)	Internet bidezko gastuaren ehunekoa (%)
2022	41,3	3.956	10,0
2021	36,5	4.336	10,0
2020	38,8	3.798	10,1
2019	37,0	3.608	8,5
2018	35,3	4.191	10,1
2017	29,8	4.178	10,0
2016	23,1	4.169	9,5

Data 2023ko Ekainaren 28a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Internet bidez eginiko gastuaren bilakaera kontuan hartuta, 2022an gora egin du Internet bidez erosketaren bat egin duten etxeen ehunekoa, eta Euskal AEko etxeen guztizkoaren % 41,3 izan da, baina etxeko batez besteko gastua pixka bat jaitsi da, eta 3.956 eurokoa izan da; alegia, etxeko gastuak urtean 380 euro egin du behera.

Kontsumoko gastua, etxeen ezaugarrien arabera

Euskal AEko etxeetako gastua aztertuz gero, etxea eta bertako kideak sailkatzeko aldagaien arabera, datuen ikuspegi sozioekonomikoa lortzen dugu.

Etxearen tamainari dagokionez, *1 kide* duten etxeek **pertsonako** 23.137 euroko **batez besteko gastua** egin dute 2022an, Euskal AEko batez besteko gastua (15.103 euro) baino % 53,2 handiagoa. Aurreko urtearekin alderatuta, *1 kide* duten etxeek pertsonako gastua handitu dute, urtean 1.095 euro, batez beste. *2 kide* dituzten etxeek batez beste 17.961 euroko gastua dute, batezbestekoa baino % 18,9 handiagoa. *3 kide* (13.162 euro) eta *4 kide eta gehiago* (11.515 euro) dituzten etxeak, berriz, batezbestekoaren azpitik geratu dira (% 12,9 eta % 23,8, hurrenez hurren).

Euskal AEko guztizko gastua eta batez besteko gastuak, etxeko tamainaren arabera. 2022

	Guztizko gastua (mila euro)	Etxeko batez besteko gastua (euro)	Pertsonako batez besteko gastua (euro)
GUZTIRA	32.508.066	35.455	15.103
kide bat	6.179.552	23.137	23.137
2 kide	10.455.481	35.923	17.961
3 kide	6.929.692	39.485	13.162
4 eta gehiago	8.943.340	48.805	11.515

Data 2023ko Ekainaren 28a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Etxeko diru-sarreraren iturri nagusiari dagokionez, *beren konturako lana eta jabetza- eta kapital-errentak* diru-sarreraren iturri nagusi dituzten etxeak izan dira 2022an batez besteko gastu handiena izan dutenak —40.879 euro urtean—; Euskal AEko batezbestekoa baino % 15,2 handiagoa, eta batez besteko gastua % 12,5 handitu da, 2021arekin alderatuta; alegia, batez beste, urtean, etxe bakoitzeko, 4.544 euroko igoera izan du gastuak. Ondoren, diru-sarreraren iturri nagusia *besteren konturako lana* izan duten etxeak kokatu dira, 38.932 euro batez beste etxe bakoitzeko (2021ean baino % 8,9 gehiago). Azkenik, etxe bakoitzeko 30.073 euroko batez besteko gastuarekin eta Euskal AEko batezbestekoa baino % 13,2 txikiagoarekin ditugu diru-sarrera nagusi gisa *pentsioak, subsidioak eta bestelako prestazio eta diru-sarrera erregularrak* izan dituzten etxeak.

Euskal AEko guztizko gastua eta batez besteko gastuak, etxeko diru-sarreraren iturri nagusiaren arabera . 2022

	Guztizko gastua (mila euro)	Etxeko batez besteko gastua (euro)	Pertsonako batez besteko gastua (euro)
GUZTIRA	31.902.531	35.487	15.131
Norberaren konturako lana eta jabetza- eta kapital-errentak	2.646.256	40.879	14.985
Besteren konturako lana	17.033.619	38.932	14.253
Pentsioak, sorospenak eta bestelako prestazio eta diru-sarrera erregularrak	12.183.480	30.799	16.576
Ez da ageri	39.176	34.073	23.583

Data 2023ko Ekainaren 28a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Sostengatzaile nagusiaren jardueraren ondoriozko egoeraren arabera, etxeetako gastuari dagokionez, 2022an sostengatzaile nagusia aktibo egon den etxeetan, etxeetako batez besteko gastua 37.455 eurokoa izan da, 2021ekoa baino % 7,8 handiagoa eta Euskal AEko batezbestekoa baino % 5,6 handiagoa. Aitzitik, sostengatzaile nagusia aktibo egon ez den etxeen batez besteko gastua 32.332 eurokoa izan da, batezbestekoa baino % 8,8 azpitik, baina aurreko urtean baino % 7,2 handiagoa.

Euskal AEko guztizko gastua eta batez besteko gastuak, sostengatzaile nagusiaren jardueraren egoeraren arabera. 2022

	Guztizko gastua (mila euro)	Etxeko batez besteko gastua (euro)	Pertsonako batez besteko gastua (euro)
GUZTIRA	32.508.066	35.455	15.103
Aktiboak	20.934.861	37.455	13.990
Ez-aktiboak	11.573.205	32.332	17.645

Data 2023ko Ekainaren 28a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Oharra: Familia-gastuaren inkesta Estatistikako Institutu Nazionalarekin (INE) lankidetzan egiten da Euskal Aautonomia Erkidegoan.

Argibide gehiagorako:

[Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62